

## *Funtsezko baliabideak*

Alde batetik, gure baliabide fisikoei dagokionez, guk bulego bat edo gehiago, eta hauek behar duten materiala izango ditugu. Hau da, ordenagailuak, telefonoak... Hauekin gure bezeroekin eta aliatuekin harremanetan jarriko gara.

Bestalde, gure baliabide intelektual eta giza baliabideei dagokienez, gure enpresako kide diren Laura eta Anneren jakintzak izango ditugu, produktuaren funtzionamenduari dagokionez, marketing ezagutzak Nahiaren aldean eta Luisen kontabilitate ezagutzak, azkenik.

Azkenik, gure finantza baliabideak oso eskasak dira. Soilik gure aurrezkiak izango ditugu, baina Kinovarekin egingo dugun aliantzarekin, beraien laguntza ekonomikoa lortzea espero dugu.